



**Andoaingo  
Udala**

## **Gizarte Ongizate Kontseiluko Arautegia**

## **Reglamento del Consejo de Bienestar Social**

### *1.- artikulua*

Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua kontsultarako organoa da, segimendu globala egin eta Andoaingo herriko gizarte zerbitzuetako udal politikan parte hartu behar duena.

### *2.- artikulua*

Funtzio hauek ditu:

- a).- Andoaingo gizartearen errealitatea aztertzea.
- b).- Gizarte ongizateko alorrean Udalak dituen programa eta egitasmoak aztertu eta horiei buruz aholkuak ematea.
- c).- Informazioa jaso eta Udalak gizarte zerbitzuetan daraman kudeaketa aztertzea.
- d).- Bere eskumen mugaren barruan, epe labur, erdi eta luzera dauden udal programa eta gizarte ekimenak zabaldu eta horien berri ematea, bere gizarte zerbitzuen kudeaketan hiritarren parte-hartzea bultzatuz.
- e).- Gizarte zerbitzuetan lanean ari diren entitateen iharduketak koordinatzea.
- f).- Behar diren udal organuei informazioa eman eta bidaltzea herriaren ongizatearentzako ekimenak hobetu, suspertu eta bultzatzeari buruzko iharduketak.
- g).- Indarrean dauden lege edo xedapenek ematen dioten beste edozein.

### *3.- artikulua*

Hauek dira Kontseiluko organoak:

- a).- Lehendakaria
- b).- Idazkaria
- c).- Plenoa

### *4.- artikulua*

Kontseiluko lehendakaria Zerbitzu eta Gizarte Ongizateko Batzordeko lehendakari bera izango da. Gizarte Ongizateko Kontseiluaren Plenoa ordezkatu, horren buru izan eta hori deitzeko funtzioak izango ditu.

### *5.- artikulua*

Kontseiluko idazkaria Zerbitzu eta Gizarte Ongizateko Batzordeko idazkari bera izango da, honako funtzioekin:

### *Artículo 1.*

El Consejo Municipal de Bienestar Social es el órgano de carácter consultivo, de seguimiento global y de participación en la política municipal de servicios sociales en el municipio de Andoaín.

### *Artículo 2.*

Sus funciones son:

- a).- Analizar la realidad social de Andoaín.
- b).- Estudiar y asesorar los programas y planes de actuación municipal en el área de bienestar social.
- c).- Recibir información y analizar la gestión municipal en el área de los servicios sociales.
- d).- Informar y difundir en el ámbito del municipio los programas municipales y las iniciativas sociales a corto, medio y largo plazo en el área que es de su competencia, potenciando la participación ciudadana en la gestión de los propios servicios sociales.
- e).- Coordinar las actuaciones de las diferentes entidades que trabajan en el campo de los servicios sociales.
- f).- Informar y elevar propuestas a los órganos municipales correspondientes sobre actuaciones tendentes a mejorar, promocionar y estimular iniciativas de cara al bienestar social de la localidad.
- g).- Cualquier otra que le atribuyan las leyes o disposiciones vigentes.

### *Artículo 3.*

Los órganos del Consejo son:

- a).- Presidente/a
- b).- Secretario/a
- c).- Pleno

### *Artículo 4.*

El/la Presidente/a del Consejo será el/la Presidente/a de la Comisión de Servicios y Bienestar Social. Sus funciones serán las de representar, presidir y convocar al Pleno del Consejo de Bienestar Social.

### *Artículo 5.*

El/la Secretario/a del Consejo será el/la de la Comisión de Servicios y Bienestar Social y sus funciones serán:



## Andoaingo Udala

---

- a).- Kontseiluaren bileretako akta idaztea.
- b).- Bileretako deialdia bidaltzea.
- c).- Kontseiluko partaideei behar den dokumentazioa bidaltzea.
- d).- Kontseiluko partaideen proposamenak jasotzea horiek tramitatu eta Kontseiluan azter ditzaten.

### 6.- artikulua

Honako partaideak izango ditu Kontseiluaren Plenoak:

- a).- Lehendakaria
- b).- Udalean sartuta dauden talde politikoen ordezkari bana
- c).- Gizarte zerbitzuetan lan egin eta herri honetan dauden legez eraturako elkarten ordezkari bana.

Udalerrian gizarte zerbitzuen alorrean lanean ari diren profesionalen ordezkariak (Udaleko gizarte laguntzailea, Zerbitzu eta Gizarte Ongizate Batzordeko idazkaria...).

### 7.- artikulua

Partaideen agintaldiak izango duen iraupena horiek hautatu dituzten taldeen esku egongo da, edozein garaitan beste batzuekin ordeztu daitezkeelarik: udal agintaldiaren bukaeran, berriro hautatu edo ordeztu beharko dira espresuki.

### 8.- artikulua

Gizarte Ongizate Kontseilua Andoaingo Udaletxean egongo da.

### 9.- artikulua

Kontseiluak hiru hilabetez behin egingo ditu ohizko bilera. Bilera bereziak egin ahal izateko, berriz, 48 ordu aurretik Kontseiluko partaideen erdiak eta bat gehiagok eskatu beharko dute.

### 10.- artikulua

Lehen deialdian Kontseiluko partaideen erdiak eta bat gehiagok egon beharko dute bertan, eta edozein kopuruk bigarrenean, hartutako proposamenek balio izan dezaten. Lehendakariak eta idazkariak edota horien legezko ordezkariak, ordea, bertan egon beharko dute beti ere.

### 11.- artikulua

Kontseiluak bere Barne Arautegia ezarri eta Andoaingo Udal Batzarreak onartuko du, arautegi

- a).- Redactar el acta de las reuniones del Consejo.
- b).- Enviar la convocatoria de las reuniones.
- c).- Remitir la documentación pertinente a los/as miembros del Consejo
- d).- Recibir las propuestas de los miembros del Consejo para su tramitación y discusión en el Consejo.

### Artículo 6.

El Pleno del Consejo estará compuesto por los/as siguientes miembros:

- a).- El/la Presidente/a
- b).- Un/a representante de cada uno de los grupos políticos con presencia en el Ayuntamiento.
- c).- Un/a representante de cada una de las asociaciones legalmente inscritas, que trabajan en el campo de los servicios sociales y que tenga presencia en la localidad.

Una representación de profesionales que trabajen en el área de servicios sociales en el municipio (Asistente Social del Ayuntamiento, Secretario/a de la Comisión de Servicios y Bienestar Social...).

### Artículo 7.

La duración del mandato de los/as miembros dependerá de los colectivos que lo hayan nombrado, pudiendo ser sustituidos en cualquier momento, debiendo a la finalización de cada mandato municipal ser reelegidos/as o sustituidos/as expresamente.

### Artículo 8.

La sede del Consejo de Bienestar Social será la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Andoain.

### Artículo 9.

El régimen de reuniones ordinarias del Consejo será trimestral. Las reuniones de carácter extraordinario se realizarán cuando con 48 horas de antelación lo solicite la mitad más uno de los/as miembros del Consejo.

### Artículo 10.

Será necesaria la presencia de la mitad más uno de los/as miembros del Consejo en primera convocatoria, o de cualquier número de ellos/as en segunda convocatoria, para que las propuestas que se adopten tengan validez. En todo caso, se requiere la asistencia del/de la Presidente/a y del/de la Secretario/a o de quienes legalmente les sustituyan.

### Artículo 11.

El Consejo establecerá su propio Reglamento Interno que será aprobado por el Pleno del Ayuntamiento de



## Andoingo Udala

---

honen eta indarrean dagoen legeriaren barruan gauzatu behar delarik.

### *12.- artikulua*

Kontseiluaren funtzionamenduko gastuak horri dagokion partidaren kontura izango dira eta Udalaren aurrekontuan sartuko da.

Andoain y el cual se desarrollará en el marco de la presente normativa y demás legislación vigente.

### *Artículo 12.*

Los gastos de funcionamiento del Consejo serán con cargo a la correspondiente partida que se incluirá en los presupuestos del Ayuntamiento.

### **Azken xedapena eta bakarra**

Arautegi hau apirilaren 2ko 7/85 Oinarri Legeak 70.2 artikuluan eta 2.568/86 Errege Dekretuak 196 artikuluan aurrikusitakoaren arabera jarriko da indarrean eta hala egongo da Udalak aldatzea edo derogatzea erabakitzen duen arte.

### **Disposición final y única**

El presente Reglamento entrará en vigor conforme a lo previsto en los artículos 70.2 de la Ley de Bases 7/85 de 2 de abril, y 196 del R.D. 2.568/86 y permanecerá en vigor hasta que el Ayuntamiento acuerde su modificación o derogación.